



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abenduaren 16a

119. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailearen osaketa arautzekoa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika arbuiazen du, foru parlamentari Igor Arroyo Leatxe jaunak aurkeztua (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko zitudadelan eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginia (10. or.).

—Galdera, Kasedako herrilurren egoerari buruzkoa, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak eginia (11. or.).

—Galdera, 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginia (12. or.).

—Galdera, banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak eginia (13. or.).

—Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak eginia (13. or.).

—Galdera, banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egingina (14. or.).

I SAILA:

**Parlamentuko Jarduera:**

—2002ko irailean egindako bilerak (15. or.).

—2002ko irailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (17. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko azaroaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioiko Batzordearen esku uztea.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2003ko otsailaren 6ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 56.1 artikulua xedatzen duenez, Nafarroako toki korporazioek diru kopuruak jartzen ahal dituzte aurrekontuetan beren kideei kargua betetzeagatik ordainsariak edo kalte-ordainak emateko.

Bestalde, laguntza horiek ezartzeko, toki entitateek bete beharreko prozedura eta baldintzak zehazten ditu Toki araubideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitatea garatzeko udal kargu publikoek egiten duten lan paregabea aitortuz, udalen bizitza publikoa duintzearen eta udal-lentzat aiseago izan dadin beren kideentzako ordainsari eta laguntzak ezarri eta ordaintzea, diru konpentsazioko sistema bat ezartzea da foru lege honen xedea. Foru Komunitateko administrazioak ezarri beharko du sistema, eta udalek gai hori dela-eta duten gastua hein batean finantzatu du, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura.

Horretarako, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsean, "Nafarroako udal-lentzako konpentsazioa beren kideei ordainsariak edo laguntzak emateagatik" izeneko atala sortu da "Beste laguntza batzuk" kontzeptuaren barrenean.

Udal korporazioen agintaldi berria hasten denean nahi baita foru lege honek indarra hartzea, bigarren seihilekorako bakarrik da 2003. urteko aurrekontuan ezarritako diru kopurua. Oro-

bat, 2004koa ere finkatu da, urte osoa hartzen duena, uztaillaren 2ko 24/2002 Foru Legearen indarraldiarekin bat etorritz. Foru lege horretan 2002tik 2004ra bitarteko ekitaldietako aurrekontuen zenbatekoa eta banatzeko formula ezarri dira.

**1. artikulua.** Foru Komunitateko administrazioak diru konpentsazioko sistema bat ezartzea da foru lege honen xedea, kargua betetzeagatik beren kideei ordainsariak edo laguntzak ematen dizkieten Nafarroako udalentsat.

**2. artikulua.** Foru lege honek ezarritako diru konpentsazioen sisteman sartu nahi duten udalek beren kideei kargua betetzeagatik ordainsariak edo laguntzak emateko erabakia hartua izan beharko dute, legeria orokorrak ezarritako baldintzei jarraituz.

**3. artikulua.** 1. Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuari eginen zaizkio diru konpentsazioaren eskaerak, eta dokumentazio hau erantsiko zaie:

a) Ordainsariak edo laguntzak ezarri eta haien zenbatekoak finkatzen dituen erabakiaren ziurtagiria.

b) Aipatu laguntzak emateko kontusailak aurrekontuan adierazita daudela dioen ziurtagiria.

c) Korporazioko alkate-lehendakariak zein kide ariko diren dedikazio partzialean eta zein erabatekoan zehazten duten ebazpenak eginez gero, haien ziurtagiria.

d) Udalak ordaindutako zenbateko gordinen ziurtagiria, zehaztuz korporazioko kideak, zein zer kontzepturi dagokion (ordainsari edo laguntza gisa) eta zer epetakoak diren.

2. Eskaerak iragandako hiruhileko naturalei buruzkoak izanen dira, eta Toki Administrazioako Departamentuak ordainduko ditu konpentsazioak, hiruhilekotik hiruhilekora.

Dena dela, eskaerak seihileko naturalei edo urte naturalei buruzkoak izaten ahal dira eta, orduan, denboraldi horien arabera konpentsazioak emanen dira.

Beti ere, urte natural bakoitzeko konpentsazio-etarako eskubidea iraungi eginen da hurrengo urteko urtarrilaren bosta baino lehen eskaera aurkezten ez bada.

3. Bigarren eskaeran eta hurrengoetan, artikulua honetako 1. zenbakiko d) atalean aipatutako ziurtagiria baino ez da aurkeztu beharko.

Dena dela, aurreko eskaeren gainean aldaketak egin badira, a), b) eta c) letretan aipatu dokumentazioa erantsi beharko da.

**4. artikulua.** Irizpide hauen arabera finkatuko da konpentsazioen zenbatekoa:

1. Alkateak.

BIZTANLERIA	LAGUNTZARAKO OINARRIA	KONPENTSAZIOA
< 100	4.207 euro	% 80
101-500	7.212 euro	% 75
501-2.000	12.020 euro	% 70
2.001-5.000	21.035 euro	% 65
5.001-10.000	27.045 euro	% 60
10.001-50.000	36.060 euro	% 55
> 50.000	45.075 euro	% 50

2. Erabateko dedikazioan edo partzialean diharduten zinegotziak.

BIZTANLERIA	ZINEGOTZIAK	LAGUNTZARAKO OINARRIA	KONPENTSAZIOA
500-2.000	1	1.738 euro	% 70
2.001-5.000	2	2.607 euro	% 65
5.001-7.000	3	3.473 euro	% 60
7.001-10.000	4	5.215 euro	% 60
10.001-25.000	5	7.572 euro	% 55
25.001-50.000	6	9.976 euro	% 55
> 50.000	10	14.424 euro	% 50

Beren eginkizunak araubide horietan betetzen dituzten zinegotziei emanen zaie diru konpentsazioa, udalerriko biztanleria zein den, haren arabera zenbateko bat, gehienez ere. Gehieneko zenbateko hori gairatuz gero, ondoko atalean adierazitakoaren arabera konpentsazioa emanen da, baita beren kargua dedikazio partzialean edo erabatekoan betetzen ez duten zinegotzientzat ere.

3. Kargua dedikazio partzialean edo erabatekoan betetzen ez duten zinegotziak.

BIZTANLERIA	LAGUNTZARAKO OINARRIA	KONPENTSAZIOA
< 2000	869 euro	% 70
2.001-5.000	1.303 euro	% 65
5.001-7.000	1.736 euro	% 60
7.001-10.000	2.607 euro	% 60
10.001-25.000	3.786 euro	% 55
25.001-50.000	4.988 euro	% 55
> 50.000	7.212 euro	% 50

4. Foru lege honen ondorioetarako, udal hauteskondeetarako deialdian erabili ziren biztanleriaren zifra ofizialak hartuko dira kontuan udal agintaldi bakoitzean.

5. Urte natural batean korporazioko kide bakoitzeko gehieneko kantitateari, diru konpentsazioa finkatzeko kontuan hartuko denari, deitzen zaio laguntzarako oinarria, edozein dela ere udalek ordaintzea erabaki duten zenbatekoa.

6. Konpentsazioa finkatzeko, kasu bakoitzeko ehunekoak aplikatuko zaie udalek ordainsari edo laguntza gisa ordaindu dituzten zenbateko gordinei, artikuluko honetako 1., 2. eta 3. ataletan adierazitako irizpideei jarraituz, aurreko idatz-zatian ezarritakoa ukatu gabe.

7. Betiere, bateraezinak dira laguntzak hartzea eta karguko dedikazio partzialagatik nahiz erabatekoagatik ordainsariak kobratzea.

**5. artikulua.** Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako Departamentuak ordainduko ditu konpentsazioak, 3.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aldez aurretik, foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen diren bezala begiratu da. Horretarako, eskaerak zuzentzeko eskatzen ahal da, baita beharrezkotzat jotzen den dokumentazio osagarri guztia ere.

**6. artikulua.** Konpentsazioak hartzeko ezarritako edozein baldintza betetzen ez bada, bidegabe jasotako konpentsazioak itzuli beharko dira, Toki Administrazioako Departamentuak espedientea tramitatu eta interesa duen udalari entzunaldia eman ondoren.

Itzuli beharrekoa adostutakoan, udalak hilabetean itzultzen ez badu, banatze kontuan kargatuko da.

#### **Xedapen gehigarriak**

**Lehenbizikoa.** 2002tik 2004ra bitarteko ekitaldietako aurrekontuetan toki ogasunek Nafarroako

tributuetan parte hartzeko funtsa banatzeko zenbatekoa eta formula ezartzen dituen uztailaren 2ko 24/2002 Foru Legearen 2. artikulua aldatu da, "Beste laguntza batzuk" kontzeptuaren barrenean "Nafarroako udalentsako konpentsazioa beren kideei ordainsariak edo laguntzak emateagatik" izeneko atala sartu baita, eta diru kopuru hauek ditu aurrekontuetan: 1.860.566,78 euro 2003. urterako eta 3.721.133,55 euro 2004. urterako. Azken kopuru hori aipatu Foru Legearen 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera gehituko da.

**Bigarrena.** "Nafarroako udalentsako konpentsazioa beren kideei ordainsariak edo laguntzak emateagatik" ataleko baliabideak ekitaldi ekonomikoan erabiltzen ez badira, hurrengo ekitaldiko kapital transferentzien funtsari gehituko zaizkio, eta Nafarroako Gobernuaren lehentasuna duten inbertsioak finantzatzeko erabiliko dira, toki azpiegituren planetako irizpideei eutsiz.

**Hirugarrena.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari diru konpentsazioen laguntzarako oinarrien kopuruak, foru lege honen bitartez ezarritakoak, eguneratzeko.

#### **Xedapen iragankorra**

Foru lege honek urte naturalerako ezartzen dituen laguntzarako oinarrietatik abiatuz finkatuko dira 2003. urteko konpentsazioak zehazteko balioko dutenak, foru lege honek indarra hartu eta zenbat denboran eman diren ordainsariak edo laguntzak, haren arabera.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek 2003ko uztailaren 1ean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailearen osaketa arautzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailearen osaketa arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.-** Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailearen osaketa arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.-** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailearen osaketa arautzeko Foru Lege proposamena**

Nafarroako merkataritza arautzeko uztailearen 12ko 17/2001 Foru Legeak aurreikusten zuen, 63. artikuluan, Txikizkako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailea, Nafarroako Foru Erkidegoan eta gai honen gaineko aholkuak emateari dagokionez, organo eskuduna izanen dena. Gisa berean, osaketa, eraketari eta funtzionamenduari dagokionez, beranduagorako erregelamenduzko garapena ere ezartzen zen. Gainera, foru legeak aurreikusten zuen gizarte interesen ordezkari diren erakunde eta entitateen presentzia. Honetaz aritzen da

uztailearen 12ko 17/2001 Foru Legea, aipaturiko kontseilu aholku-emailearen eraketan, esaten duenean ordezkari izanen dutela Merkataritza eta Industria Ganbarak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Nafarroako Merkatarien Federazioak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteek, eta sektorean presentzia duten erakunde sindikalek.

Nafarroako Gobernuaren 2002ko apirilaren 15eko akordioaren bidez, aintzat hartu zen Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen osaketa, eraketa eta funtzionamendua arautzen duen Foru Dekretua. Txosten hori 2002ko ekainaren 10ean eman zen, aldeko iritzia-ekin.

Uztailearen 22ko 174/2002 Foru Dekretuak, Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen osaketa, eraketa eta funtzionamendua arautzen du eta, gure ustez, zehazten duen osaketa ez da proportzionala eta ez du ordezkatzeko Nafarroako merkataritza sektoreko eragile ekonomiko eta sozialen eta sektorearen beraren aniztasuna.

#### **1. artikulua**

Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak honako osaketa izanen du:

– Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontseilari titularra, lehendakari izanen dena.

– Ekonomia eta Ogasun, Toki Administrazio eta Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza departamentuetako ordezkari bana, dagokien kontseilariak izendatuak.

– Merkataritza eta Kontsumoko Zuzendari Nagusia. Merkataritza eta Kontsumo Zerbitzuko Zuzendari Nagusia.

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendaturiko hiru ordezkari.

- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak izendaturiko bi ordezkari.
- Merkataritza Elkarteen Federazioak izendaturiko hiru ordezkari.
- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak izendaturiko bi ordezkari.
- Nafarroako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek proposatuen artean, bi ordezkari, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak izendatuak.
- Sektorean presentzia duten erakunde sindikalek proposatuen artean, hiru ordezkari, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak izendatuak.
- Administrazio publikoko teknikaria (lege alorrekoa), Industria eta Teknologia, Merkataritza,

Turismo eta Lan Departamentuak izendatua. Kontseiluko idazkaria izanen da, hitzarekin baina botorik gabe.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak emateko.

**Bigarrena.** Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika arbuiatzen du**

### *FORU PARLAMENTARI IGOR ARROYO LEATXE JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Igor Arroyo Leatxe jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika arbuiatzen du".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Igor Arroyo, Askotariko Taldeko parlamentari independentistak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako mozio hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

Azaroaren 21eko osoko bilkuran parlamentari independentistok Nafarroako Gobernuak Nafarroako Euskararen Kontseiluaren izendapenen inguruko azalpenak eman zitzaizkien aurkezturiko jabeldura izan genuen hizpide. Gobernuak izendatutako pertsonak zituzten merezimenduak ezagutu nahi zuen nire talde parlamentarioak. Alabaina, Laguna jaunak jabeldura horri emandako erantzuna oso eskasa izan zen; areago, ez zuen erantzunik eman, ez zuen azaldu zer nolako merituak zituzten izendatutako pertsonak ez eta zergatik aldatu zen Kontseiluaren quoruma. Eta funtsean adierazi zuena zera da: Gobernuak izendatu ditu, eta kitto. Horixe da, hain zuzen ere, auziaren muina: Gobernuak pertsona horiek izen-

datu ditu, ez euskara edo euskal kulturaren inguruan adituak direlako, baizik eta UPNrekiko leialak direlako, eta beraz prest daudelako alderdi horren hizkuntza politika genozida babesteko.

Era honetan, epaitegiek bertan behera utzitako Administrazioaren dekretua berreskuratu nahi du Gobernuak, bere neurria egindako Euskararen Kontseilua osatuz. Hau da, euskararen aldeko instituzio serioa izan beharko lukeena, bere mesederako tresna hutsa bilakatu du Gobernuak. Izan ere, euskararen eta euskal kulturaren aurka UPNk darabilen gurutzadan dena da zilegi, euskara baztertzeko helburuak bitarteko guztiak justifikatzen ditu.

Jokaera horren adibide garbiak ezagutu ditugu azken aldi honetan euskarazko komunikabideentzako diru laguntzen deialdia dela-eta. Aurreko deialdian izandako jokaerarengatik auziperatua dago Hizkuntza Politikako zuzendari Pegenaute, prebrikazio kasu baten ustezko erantzulea izateagatik. Aurtengo deialdian amarruak erabiltzen ditu, berrito ere, Gobernuak, euskarazko komunikabide nagusiei dirulaguntzak ukatzeko asmoz. Era honetan, idatzizko komunikabideei dagokionez (eta ez besteei dagokionez) hauek 2001. urtea baino lehenago argitaratzen zirenak izan behar direla ezartzen da, Nabarra aldizkaria kanpoan uzteko. Irratien kasuan, lizentzia izatea jartzeko ezinbesteko baldintza gisa, Euskalerrria Irratia kanpoan uzteko. Gogoratu beharra dago kasu honetan Nafarroako Parlamentuak lizentzia ematearen aldeko adierazpena egin zuela, baina Gobernuak uko egin ziola adierazpen hori aintzat hartzeari. Azkenik, idatzizko komunikabideen kasuan etenik gabe argitaratu behar direla ezartzen du, Euskaldunon Egunkariako Nafarkaria gehigarria baztertzeko asmoz. Gogoratu beharra dago gehigarri honek etenik izan badu, aurreko deialdian Nafarroako Gobernuak izandako jokabidearen ondorioz izan dela.



Beraz honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dut:

1. Nafarroako Parlamentuak Gobernuak Nafarroako Euskararen Kontseilurako egin izendapenak zuzenak ez direla adierazten du, izendapenak egiteko orduan ez delako izendatuek euskara eta euskal kulturaren inguruan duten ezagutza maila kontutan hartu.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren hizkuntza politika errefusatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak euskarazko komunikabideentzako ateratako dirulaguntzen deialdian jarritako baldintzak errefusatzen ditu, hainbat komunikabide baztertzeko espresuki ezarri diren aldetik.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Igor Arroyo Leatxe

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko ziudadelan eraikitzeari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako arte garaikidearen zentroa Iruñeko ziudadelan eraikitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan esan du nahitaezkoa dela arte garaikideko zentro bat eraikitzea Nafarroan. Nafarroako Gobernuak, hasierako planteamenduetan, zentro horren egoitza Iruñeko ziudadelan kokatzen zuen. Foru Komunitateko artista eta kultura taldeek kontrako iritzia eman zuten bere garaian, uste baitzuten ziudadela ez zela gunerik egokiena arte garaikiderako Nafarroako zentroa bertan egokitzeko. Are gehiago, ziudadelako aukerak krisia ere sortarazi

zuen Kulturaren Nafarroako Kontseiluaren atal batean. Krisi horrek komunikabideetan ere izan zuen bere isla, baita Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordean ere. Talde parlamentario honek ez du ezagutzen gai honi dagokionez aitzinamendurik eman izan den. Hortaz, ondokoa jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak oraindik ere defendatzen al du, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bidez, arte garaikidearen Nafarroako zentroa Iruñeko ziudadelan eraikitze asmoa?

2.- Nafarroako Gobernuak bestelako kokalekuri aztertu al du, Nafarroako ondare artistikoa babesteko indarrean dagoen araudiarekiko errespetu osoz, Iruñean edo Foru Komunitateko beste herriren batean aipaturiko zentroa egokitzeko?

3.- Nafarroako gobernua oraindik ere ba al du Nafarroan arte garaikidearen zentro bat eraikitze-ko interesik? Nafarroako Gobernuak helburu hau bete ahal izateko egin dituen ekintzen zerrenda eskatzen dugu.

4.- Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak arte garaikidearen zentro hori eraikitzea, oraindik ere Nafarroako kultura taldeek eskatzen dutena eta Nafarroako Gobernuarendako lehentasuna zena?

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

---

## **Galdera, Kasedako herrilurren egoerari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Kasedako herrilurren egoerari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Nafarroako Gobernuak jabetu behar du Kasedan, bertako herri lurren ezaugarri bereziak direla eta, dagoen arazoaz, herri lurrez eta edukitzan dauden herri lurrez osatuak baitaude. Hori dela eta, Kasedako Udalak 90. hamarkadatik aurrera, trantsakzio-hitzarmen baten bidez, partikularren izenean dauden finka-matrikulazioaren arazoari aurre egiten saiatzeko erabakia hartu zuen. Ez zuenez gaitasun ekonomiko ezta teknikorik ere, Kasedako herritarrendako horren garrantzitsua den lana Nafarroako Gobernuari eskatu zion egiteko.

Arazoan parte direnen sentsibilitateak bateratzeko formula asko aztertu ondotik, Kasedako Udalak trantsakzio-hitzarmena sinatu zuen

1996ko apirilaren 26ko osoko bilkuran berezian. Ondotik, Nafarroako Gobernuari igorri zion, aztertu eta behin-betiko onartua izan zedin. Gaurko egunean Nafarroako Gobernuak ez du oraindik hitzarmena onartu, eta Kasedako Udalak dokumentazioa igorri eta 6 urte baino gehiagora oraindik onartua ez izana arraroa da arras. Hori dela eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

1.- Zenbat bilera egin ditu Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Kasedako Udalaren ordezkariekin eta partikularrek honetarako propio eraturiko batzordearekin egoera hau legegintzaldi honetan konpondu eta bideratu asmoz? Bilera horien datak eta joan zirenen zerrenda eskatzen dugu.

2.- Zeintzuk izan dira Nafarroako Gobernuak gauzatu dituen neurriak gai hau konpontzeko, Kasedako Udalak 1996an hitzarmena igorri ondotik?

3.- Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak Kasedako herritarrek horrenbeste ardurtzen dituen arazo honi behin betiko konponbidea eman ahal izatea?

4.- Kasedako Alkate Jesus Antonio Iriarte jaunak erositako herri lurak direla eta, egin al dute herritarrek salaketarik?

5.- Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuak salaketa hauek bideratzeko onartu dituen neurri eta ekintzak? Zenbait departamentuk salaketa hauen gainean egindako txosten teknikoak eskatzen ditugu.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Galdera, 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 2000-2003 eperako kirol-instalazioen planaren garapenari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 5ean onartu zuen 2000-2003 aldirako kirol instalazioetarako Plana. Planaren helburuen artean zegoen programa multzoa ezartzea instalazio berriak eraikitzeko, berriztatze obrak egin ahal izateko, eta konponketa handiak zein xumeak egin ahal izateko; helburua zen Nafarroako kirol ekipamendua gehitzea, hobetzea eta modernizatzea.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariaren ekainaren 20ko 45/2000 Foru Aginduan, 2000-2003 aldirako kirol instalazioen alorrean inbertsioak egin ahal izateko Nafarroako toki entitateendako dirulaguntza deialdiaren oinarriak arautzen ziren. Foru agindu horretan zehazten zen aurrekontuen zenbatekoa; 2000 urterako 529.500.000 pezeta, 2001 urterako 590.200.000 pezeta, 2002 urterako 821.300.000 pezeta eta 2003 urterako 859.000.000 pezeta, Nafarroako

Gobernuak 2000ko ekainaren 5eko bilkuran Gobernuaren Akordioak baimendu gisa.

Deialdiko oinarrian, 5. atalean, eskabideak aurkezteko tokia eta epea arautzen zen, eta eskabideak aurkezteko epea deialdia argitaratu ondoko egunetik 2000ko abuztuaren 31 artekoa zela esaten zen.

Horrengatik guztiarengatik, honako galdera hau egiten dugu:

1.- Zeintzuk izan dira entitateek aurkezturiko eskabideak, deialdiak zehazten duen epe barruan, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioetarako 2000-2003 Planaren urte bakoitzean?

Urtealdi bakoitzean zeintzuk izan dira Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak onarturiko eskabideak, kasu bakoitzari zenbat diru eskaini zaio, eta zeintzuk izan dira planak iraun bitarteko urtealdi bakoitzean onartu ez diren eskabideak, eta zein da ez onartzearen arrazoia?

3.- Arestian aipaturiko foru aginduan ezarritakoez gain, kreditu osagarririk finkatu al da? eta hori dela kausa, foru agindu horretan konprometitutako kredituak gehitu edo gutxiagotu egin dira?

4.- Kirol eta Gazteria Institutuak ezarri al du kirol instalazioak hobetzeko edo eraikitzeko dirulaguntza sistemaren bat, 45/2000 foru aginduan eta deialdiaren oinarrietan aipaturikoetatik bestelakoa?

5.- Kirol eta Gazteria Institutuak ba al du aurreikusia hitzarmen berariazkorik, finantzatu ahal izateko entitateek eskaturiko obrak, planean daudenak, eta Nafarroako Gobernuak finantzatu ez dituenak? Egoera horretan dauden eskabideen zerrenda eskatzen dugu.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

## **Galdera, banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak banantze edo dibortzio kasuetan mantenu- eta konpentsazio-pentsio ordaingabeen ehunekoari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak egin al du ikerketarik, jakin ahal izateko banantze edo dibortzio kasuetan, mantenurako pentsioetan eta konpentsazio pentsioetan, zenbatekoa den ordaintzen ez diren ehunekoa? Hala bada, zer datu ematen ditu ikerketa horrek?

Iruñean, 2002ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

---

## **Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

tillaje Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Ba al du Nafarroako Gobernuak ikerketarik jakin ahal izateko zein den erasoengatik gertatzen diren banantze eta dibortzioen kopurua?

Hala bada, ikerketa horrek zer datu ematen ditu eta eraso motaren arabera zer nolako ehunekoak ematen dira?

Iruñean, 2002ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

## **Galdera, banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNANDEZ ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko abenduaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak banantze- edo dibortzio-epaien ondoriozko mantenu- eta konpentsazio-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak banantze edo/eta dibortzio epaietan ezarritako mantenu- eta konpentsazio pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-funtsa sortzeko aukerari?

Iruñean, 2002ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## **2002ko irailean egindako bilerak**

### **MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA**

2, 9, 16, 19, 23, 25 eta 30ean.

### **OSOKO BILKURA**

12an:

– Nafarroako landa garapenari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena Nafarroako Demokratien Elkargu-nea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitatearen fondoen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Giza baliabideen kudeaketarako sistema integralaren egoerari buruzko galdera, foru parlamentari José Luis Úriz Iglesias jaunak aurkeztua.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefono deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uzteko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesaren ematen dio UGTk bultzaturiko laneko iraunkortasun eta segurtasunerako herri ekimen legegileari.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gorteek adierazten dute Senatua autonomia-lurraldeen ordezkaritza ganbera bihurtu beharko litzatekeela.

– Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien.

### **HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

3an:

– Hezkuntza eta Kultura eta Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordekideak bisita egingen dutela El Bocal-era eta Cortesko gaztelura.

10ean:

– Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko 2000/2001 txostenaren edukia azal dezan.

– Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Leitzako Maxurrenea etxea ongintza- edo irakaskuntza-zereginetarako erabil dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ilundáin Haritz Berri Fundazioarekiko egungo harreman esparrua azter dezan.

### **INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA**

3an:

– Hezkuntza eta Kultura eta Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordekideak bisita

eginen dutela El Bocal-era eta Cortesko gaztelu-  
ra.

### **LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA**

4an:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-  
mentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaida-  
tu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gober-  
nua jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat  
presta dezan premiatzen da.

19an:

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren age-  
rraldia, Nafarroako administrazio publikoetako  
montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioek  
duten eskubide pasiboan araubideari buruzko  
azterlan aktuarialei buruzko txostena azaltzeko.

### **OSASUN BATZORDEA**

5ean:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren age-  
rraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, garun-lesio-  
ak dituzten Erriberako eskola-haurrei ematen  
zaien fisioterapia-tratamenduen aplikazioan gerta-  
tzen diren disfuntzioei buruz informa dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-  
mentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaida-  
tu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gober-  
nua premiatzen da azterlan bat egin dezan  
osasan arloko genero-desberdintasunei buruz eta  
horrek familia eta lan bizitza bateragarri egiteare-  
kin duen loturari buruz.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-  
mentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaida-  
tu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gober-  
nua premiatzen da laguntza bidezko ugalketako  
unitate bat sor dezan.

13an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Ospitaleko eta  
Bideko Ama Birjina, Reina Sofia, García Orcoyen  
eta Ubarmin ospitaleetako zuzendariak edo langi-  
leen zerbitzuetako buruak, azalduko dute I. kapi-  
tuluaren aurrekontu-egoera zein den.

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Ospitaleko eta  
Bideko Ama Birjina, Reina Sofia, García Orcoyen

eta Ubarmin ospitaleetako zuzendariak, aurrekon-  
tu-egoera azalduko dute.

– Lan bilera. Bertan, Oinarrizko Osasun  
Laguntzako eta Adimen Osasuneko zuzendariak  
eta Langileen Zerbitzuko buruak, aurrekontu-ego-  
era zein den azalduko dute.

### **GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA**

17an:

– Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozia-  
lak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planari  
buruz aurkeztutako proposamenak eztabaidatu  
eta bozkatzea.

24an:

– Lan bilera. Bertan, "Vida Digna" batzordea,  
alargunen egoera hobetzeko proposamenak azal-  
duko ditu.

– Lan bilera. Bertan, Alargun pentsioak berdin-  
tzeko plataforma, euren eskariak azalduko ditu.

### **TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA**

18an:

– Toki Administrazioiko kontseilariaren ager-  
raldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Barañaingo  
Udala ematen ari den euskal agiri nazionala ez  
ematen jarraitzeko aurreikusituen neurriei buruz  
informa dezan.

– Toki Administrazioiko kontseilariaren ager-  
raldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, 2001-2003 hiru  
urteko planerako ekarpenetarako irizpideei buruz  
informa dezan.

### **FORU ARAUBIDE BATZORDEA**

24an:

– Nafarroako Gobernuako Lehendakariaren  
agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Bardea-  
ko Batzarraren eta Defentsa Ministerioaren arteko  
gaur egungo kontratua bukatzeko eman diren  
urratsei buruz informa dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-  
mentuko Taldeak aurkeztutako erabaki proposa-  
mena eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez,  
Nafarroako Arartekoari eskatzen zaio espediente  
fiskaletako konfidentziasuna bermaturik ote  
dagoen aztertzeko.



## 2002ko irailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

### 2an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan Nafarroako Gobernua premiatzeko hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, munduko pilota txapelketaren kostuari buruzkoa.

– Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Galdera, Arboniés Bermejo andreak (IUN-NEB) egina, legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruzkoa.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko Seigarren Titulua (Kontratazioa) aldatzeari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proiektua, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzkoa. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzkoa. Socialistas del Parla-

mento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa.

– Foru Lege proiektua, Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

### 3an:

– Foru Lege proposamena, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztu dute.

– Europa Agroforestal, SLren proposamena, Foru Komunitateari buruzko inkesta orokor bat egiteko.

– Foru Lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako herritarren Urbasa mendiko zur eta egur erabilerei buruzko arauen gaineko informazioa eskatzen du.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Kontuen Ganbarak Nafarroako sistema fiskalean progresibotasuna galdu izanari buruzko txosten bat egin dezan eskatzen du.

– Foru Lege proiektua, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzeari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen

disfuntzioari lotutako zer patologia finantzatu daitezkeen ahotik hartzen diren botiken bidez.

– Galdera, foru parlamentari Puyo Rebollo jaunak egina, eremu mistoko euskararen erabilera buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruzkoa.

– Nafarroako 2003-2006 eperako estatistika plana, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketa.

– Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztutako zuzenketa.

– Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena. Foru parlamentari Milagros Rubio andreak aurkeztutako zuzenketa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Foru Administrazioak El Corte Inglés dituen kontratuei buruz foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Erregioen Komiteko 45. osoko bilkurari buruzko informazioa.

